

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroa edozein pertsona izan daiteke, mundu osoan zehar euria egiten duelako, beraz, logika hori jarraituz, gure proiektua euri asko egiten duen lekuetan bizi diren pertsonentzat aparta izango litzake.

Bestalde, gaur egun aldaketa klimatikoa dela eta, ekaitz handiak daude eta gure produktua gero eta erabilgarriagoa izango da, beraz, gure bezeroak areagotuko dira.

Hala ere, berritasun honekin hasteko, bezero zehatz batzuetan zentratuko gara, umeetan. Hasieran publiko gaztearengana zuzenduko dugu proiektua, publizitatea beraie egokituz haientzat erakargarriagoa izan dadin. Hortaz, geure alde izango genuke haurren irudimena eta horretaz baliatuko gara salmentak areagotzeko, marmoka baten barruan egotearen esperientzia bizi ahal izango dutelako. Arrazoi horregatik, umeak geure aterkia aukeratuko dute besteen aurrean eta aldi berean, gurasoak gure alde izango ditugu ere. Izan ere, guraso guztiak beraien seme-alabak lehor eta seguru egotea nahi dute eta aterki marmoka ondo dabilela ikustean, gurasoetara extrapolatuko genituzke salmentak.